



INFORMAZIO-OHARRA

INDARREAN DAUDEN ERTEAK LUZATZEA. LANGILEEN ZERRENDA AURKEZTEA, KOTIZAZIOEN ETA LANGABEZIA-PRESTAZIOEN ARLOKO EZOHICO NEURRIAK ESKATU AURRETIK

2021eko irailaren 29an, enplegua babesteko, susperraldi ekonomikorako eta lan-merkatua hobetzeko premiazko neurriei buruzko [irailaren 28ko 18/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu zen BOEn](#).

Errege lege-dekretu horren laugarren xedapen gehigarriak, kotizazioaren eta langabeziagatik babesaren arloko ezohiko neurrietarako sarbideari dagokionez, langileen zerrenda bat aurkezteko betebeharra jasotzen du [Lan eta Gizarte ekonomiako Ministerioaren SEDE ELEKTRONIKOAN](#), Ministerio honen web orrian argitaratuko den eranskinean jasotako ereduari jarraiki. Informazioa eta [dokumentu-ereduak eskuratzea](#)

Horretarako, bi epe egongo dira, luzapen- edo baimen-eskaera onartzen duen ebazpen espresuak edo administrazio-isiltasunak ondorioak dituen egunetik aurrera, edo jakinarazpena egiten den egunetik aurrera, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 2021eko azaroaren 5era arte, azaroaren 1a baino lehen luzatuta, baimenduta edo jakinarazita daudenentzat.
- Bost egun baliodun, azaroaren 1etik aurrera luzatutako, baimendutako edo jakinarazitako EETentzat.